

UZTARRIA

GUKA



AZALA: OIATZ AGUIADO, PEPEGIL, AITOR RODRIGUEZ ETA JABIER ZABALETAREN ARGAZKIAK

**IZAN ZIRELAKO GARA, ETA
GARELAKO IZANGO DIRA**



Azpeitia
Denontzat

ondo pasatu sansebastianak!



ZERBITZU PERTSONALIZATUA ETA
INTEGRALA EMATEA DA GURE HELBURUA
EMAN EGURRE TANBORRAI!



Harzulia hiribidea, 51 - AZPEITIA
erniosukaldeak@erniosukaldeak.com
943-81 57 05 - 943-15 00 63



Iritzia

Mireia Galarza Bastida

Kazetaria

Gozatu, baina errespetatu

Tortilla tipularekin edo gabe. IOS ala Android. Mendia ala hondartza. Jarrai dezaket horrela luze eta zabal, gizartea zatitzen duten bikotekako hitzak idazten, baina herrira ekarriko dut aukeraketa jarraian. Sanebastianak ala karnabalak. Egongo dira Azpeitian herriko beste festak nahiago dituzten herritarrek, baina ez gara gezurretan ibiliko. Gehientsuenok urteko lehen bi festa horiek erabiltzen ditugu herria zatitzeko. Nor ez dugu entzun esaten: «Txikiteo Eleganteko atsaldeko zezenan erteerie urteko momentu onena da!» edo «Nei bezperako tanborradan 'San Sebastian marxite' jotakuen oiloipurdije jartze zat!».

Egia esango dizuet. Alde Zaharrean jaiotakoa naiz, Done Jakue kalean, edo batzuk dioten bezala, Iturririkin. Txikitatik eduki ditut bozgorailuak nire logelako balkoiari itsatsita, eta urduritasun puntu bat ere sartu izan zait horietatik

danborradako abestiak jartzen hasten zirenean. Horrekin nahikoa ez, eta festak 50 urte bete zituenean argitaratutako liburuaren atzeko aldean dagoen CDa eta Uztarriako *playlist*-a makina bat aldiz jarritakoa naiz etxean, kantuak danborrarekin nola jo ikasteko. Eta behin esaten hasita, irakurle, aitortuko dizut banderadun egokitu zaidanean ere hartu izan dudala etxeko erratza *Idiarena* piezako jauzitxoak ondo nola egin ikasteko. Pentsa, osabak ere ume mokoa nintzela jarri zuen nire izena elkarte gastronomikoko zerrendan, helduen danborradan banderadun edo kantinera aterako nintzela ziurtatzeko.

Bateren batek eramango zituen eskuak dagoeneko burura, baina ez dut uste festa horrela bizi duen azpeitiar bakarra naizenik. Urte batzuk pasatu dira umetako pasadizo horietatik, eta Azpeitiko danborrada beste modu askotara ere bizitzeko aukera izan dut: gradu amaierako lana danborradaren inguruan egin



nuen, zuzeneko telebista programa bat baino gehiago ere egokitu zait aurkeztea bezperan udaletxetik eta aje galantarekin goizeko dianan ere jantzi dut sukaldarien jantzi zuria. Beraz, imajina eta asma dezakezue dagoeneko zein taldetakoa naizen, ezta?

Urtetik urtera geroz eta gehiago gara danborradan irteten garen azpeitiarrak, eta zoragarria da hori, bai, festek erakusten baitute herri bat nolakoa den. Beste hainbat herritan ez bezala, gurean gizarreak aurrera egin ahala egin du aurrera danborradak. Adibidez, Azpeitian pentsaezina da Erdikaletik igarotakoan herritarrek parte hartzaile batzuei bizkarra ematen ikustea, tradizioa aldagarria dela erakutsi baitugu, kasu honetan behintzat. Urtero mahai gainean jartzen den gaia ere bada talde kopuruari

«Urtetik urtera geroz eta gehiago gara danborradan irteten garen azpeitiarrak»

«Plazan ez bagara sartzen, sartuko gara Plaza Txikian, eta hori posible ez bada, pentsatu beharko dituzte beste antolaketa modu batzuk»

mugak jartzearena. Hala eta guztiz ere, nor gara gu beste herrikide bati danborradan ateratzeko gogoia izan eta hori ukatzeko? Plazan ez bagara sartzen, sartuko gara Plaza Txikian, eta hori posible ez bada, pentsatu beharko dituzte beste antolaketa modu batzuk.

Era berean, bada azkenaldian sumin pixka bat sortzen didan kontutxo bat. Festak gozatzeko daude, eta ondo dago desfilean

zehar gorputzeko zurruntasuna utzi, petakatik pare bat trago edan eta aldamenekoarekin dantza batzuk egitea, baita kuadrillakoekin argazki bat ateratzeko zure lekutik mugitzea ere. Dena den, azken urteetan normala baino gehiago sumatu dut festarekiko errespetu galera moduko bat. Kaleetan zehar, atabalak baino gehiago ikusten ditut une oro jendearen esku banatan zuritokak, eta plazan talde bakoitza non dagoen hautematea ere zaila bihurtzen da jendearen joan-etorri etengabeekin.

Beraz, berriro ere esan ez dezaten donostiarrekin alderatuta danborra errotimoiz kanpo (edo gaizki, zertarako engainatu) jotzen dugunik, orekatu dezagun dibertsioa eta festarekiko errespetua, eta jo dezagun narrua (danborrekoa, e?) gustura eta errespetuz!

HORTZEDER
HORTZ KLINIKA

Eliz kalea 23 | 943 816 668

Aho osasunean:
pasioa, emozioa, sorkuntza



Ondo pasau
sanebastianak!



Azpeitiko danborrada, 1957an.

IRURENAGROUP
ADVANCED TECH COATINGS

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Gure pinturak Landeta Brikodendan aurkitu ditzazkezu **landeta**
brikodenda



Jatorri donostiarra, arima azpeitiarra

Donostiatik ekarritako ak izan arren, bertakoak izateko iritsi ziren sansebastianak. Iglesias eta Arabaolaza apaizei esker ditu Azpeitiak festarik parte hartzaileenak.

Cilio Arabaolaza eta Baltasar Iglesias apaizkideek sortu zuten Azpeitiko danborrada, 1957. urtean. Arabaolazaren esanetan, «Soreasuko San Sebastian parrokia izan zen aitzakia». Lehendabiziko danborrada hartatik 67 urte igaro dira, eta gaur egungo festa erraldoiaren hastapenen berri oso gutxitan eman zuten bi sortzaileek. Gainera, Arabaolaza 2021eko irailaren 30ean hil zen, 94 urte zituela, eta Iglesias, berriz, 2023ko irailaren 16an zendu zen, 95 urterekin. Aurtengoa, beraz, bi sortzaileak izango ez diren lehen danborrada izango da.

Historia liburuek jasotzen dutenez, ordea, bi apaiz donostiarrak Azpeitira bidali zituzten lanera, eta lana egiteaz gain, festaren iraultza hasi zuten, orduan jakin ez bazekiten ere. Lehen urte hartan parte hartze urria izan zen arren, huraxe izan zen hastapena. «Lehenengo urtean beharrezko materiala Gipuzkoako beste herri batzuetako elkarteek utzi ziguten: Debako talde batek jantziak eta Irungo Atsegina elkarteak danborrak. Bi heldu eta bost mutiko joan ginen Iruneira, eta elkarteko gizonak aho zabalik utzi genituen: harrigarria egin zitzairen trenean bost haur eta bi heldu hainbeste danborrekin irudikatzea», go-

goratu zuen Arabaolazak 2011. urtean Argia hedabideari eskainitako elkarrizketa batean.

Entseguak tren geltokiaren atzean egin zituzten, inor ez ohartzeko moduan, «ezta hurren gurasoak ere». Musika jartzeko gailurik gabe, Arabaolazak berak kantatzen zituen abestiak: hiru guztira, Donostiako danborradatik hartutakoak: San Sebastian martxa, Idiarena eta Diana. Danborradarako, ordea, herriko musika bandarekin hitz egin zuten bi apaizek, bidea elkarrekin egin zezaten.

Hala, 1957ko urtarrilaren 19an, hogeitaz osatutako taldea ateratu zen Azpeitiko kaleetan barrena danborra jotzera. «Ez genion inori jakinarazi, ez ginen prentsan azaldu, udalari ez genion ezer esan... Egia esan, ez zitzaidan burutik pasatu ere egin inolako baimenik eskatzea, eta inori ezer esan gabe irten ginen Azpeitiko kaleetan barrena. Kalean zebilen jendearentzat harrigarria izan zen hogeitaz mutiko danborra jotzen eta musika banda elkarrekin ikustea», azaldu zuen Arabaolazak.

Lehen urte hartan ikusitako gustatu, eta bigarren urterako azpeitiarren laguntza jaso zuten bi apaizek. Egunez ere aldatu zuten danborrada: urtarrilaren 19 gauean egitetik 20 eguerdian egitera igaro ziren. «Ilusioa pixkanaka zabaltzen hasi zen. Urte hartan ere ez ge-

nuen dirurik izan, baina herri-tarrek dena jarri zuten euren aldetik. Karroza, erregina eta zaldiekin ateratu ginen urte hartan, eta deigarria izan zen; jada ez ginen danborra jotzen zuten hogeitaz hurrekin soilik kalean zihozten bi apaiz, danborrada sortzen ari zen», azaldu zuen Arabaolazak.

Aldaketarik handienetakoa, ordea, 1959an izan zen; helduak irten ziren lehenbizikoz danborradan. Bi talde osatu ziren: Oargi taldea danborrekin eta Peña Taurina barriekin. Hortik aurrera gertatutakoa ezaguna da; bilakaera ezin hobe izan du danborradak, eta azpeitiarrak beren ukitua eman diote festari, bertako doinuak eta ohiturak txertatuz. Gaur egungo plaza betearen irudia azpeitiarren gustukoena bilakatu da.

San Sebastian jaietako danborradak izan duen bilakaera ikusita, Arabaolaza pozik eta harro agertu zen 2011n egin-dako elkarrizketa batean: «Sortu genuen hura azpeitiarrak beren festa gisa bizidutela ikustea zoragarria da». 2007. urtean, Azpeitiko danborradak 50. urteurrena betetzen zuenean, merezitako omenaldia jaso zuten bi apaizek, eta Arabaolaza Azpeitian izan zen berriro.

Orduan Azpeitiak nahiko ozen esan ez bazuen ere, **ESKERRIK ASKO CECILIO ETA BALTASAR**.

Ostalaritzarako hornigaiak

Ondo pasau sansebastianak!



Azpeititik mundura

Donostiatik ekarri zuten danborradaren festa Azpeitira, eta handik beste leku batera mugitu da: Hendaia, hain justu.

Baltasar Iglesias eta Cecilio Arabalaza apaizek Donostiatik ekarri zuten jaia izan arren, Azpeitiko sancebastianak herrian errotuta dauden festak dira. Azpeitiarrek beren esentzia jarri diote danborradari urteetan zehar, Donostia-koaren desberdina izateko. Festa azpeitiarra da, beraz.

Donostiatik Azpeitirako bide hori eginda, Azpeititik beste lekuetara ere mugitu da danborrotsa. Azpeitiarren artean ezaguna ez izan arren, bada Euskal Herrian danborrada egiten duten herri bat, eta Azpeititik eramandakoa da hara, gainera. Hendaia (Lapurdi) da udalerri hori.

Txema Egiguren zenak eraman zuten Azpeitiko festa Hendaia, duela hemezortzi urte inguru. Familiarekin Hendaia joan zen bizitzera Egiguren, eta behin han finkatuta, Azpeitiko festaren zati bat bertan ezartzea erabaki zuen. Hala, Hendaiaiko Bitxintxo festen barruan danborrada egiten dute gaur egun. Data zehatz bat ez badu ere, orokorrean San Sebastian festen hurrengo astean ospatzen dute.

Hendaiaiko lauzpabost auzotako helduak nahiz umeak hainbat taldetan biltzen dira, arrantzalez, sukaldariz, pirataz edota pilotariz jantzita, eta danborrak astintzen dituzte. Lehendabizi auzoan bertan jotzen dute, eta ondoren, talde guztiak biltzen dira erdigunean. Guztira, berrehun danbor jotzaile inguru elkartzen dira.

Hendaiaiko festaren jatorria Azpeitian izateaz gain, azpeitiarrek ere parte hartu izan dute hango danborradan. Esaterako, 2019an, Ziripot elkarteko kideak Hendaian izan ziren, Bitxintxo jaietako danbor festan parte hartzen.



2020ko Hendaiaiko danborradaren irudi bat. FESTAK.COM / AGUSTIN ETA JOXE MARI MADRAZO





«Danborradan herritarrek duten parte hartzeari balioa eman behar zaio»

MIKEL ODRIOZOLA • Azpeitiko Udaleko Festa batzordeburi

San Sebastian jaien prestaketak duen lanaz, festak beste modura batera bizitzeaz eta beste hainbat kontuz jardun du Mikel Odriozola Festa batzordeburiak. Jaiak libre eta errespetuz bizitzeko mezua helarazi du.

Herritar gisa festak bizitzetik, zinegotzi gisa bizitzera. Festen pertzepzioa asko aldatu al zaitzu? Lehen nola bizi zenituen, eta orain nola bizi dituzu?

Egia esan, bai. Barrutik bizi dituzenean konturatzen zara ikusten ez den zenbat lan dagoen festa edo ekitaldi bakoitzaren atzean: zenbat pertsona, eragile, teknikari eta udal langile mugiarazten dituzten herriko festek. Zorte handia dugu Azpeitian, herritar eta eragile askok parte hartzen dute festetan, eta horiek gabe ezinezkoa litzateke jaiak aurrera ateratea.

Zinegotzi ez nintzenean, normala den bezala, festez gozatzea izaten zen helburua. Orain, festez gozaten saiatzen naizen arren, askotan kezkek ez didate behar bezala disfrutatzen uzten. Hala ere, aurretik edo ondoren, aurkitzen ditut ingurukoekin jaietzeko momentuak.

Zenbat lan du sansebastianak antolatzeak?

Egun bateko festa izateko, lan handia eskatzen du. Herritar askok parte hartzen dute sansebastianen antolakuntzan.

Noiz hasten zarete antolaketa lanekin?

Azaro erdialdera egiten ditugu lehen bilerak haurren eta helduen taldeetako ordezkariekin. Aurreko danborradako puntuak aztertu, zer hobetu dezakegun aipatu, entsegu egunak adostu eta ekarpenak jaso eta dudak argitzen ditugu. Abenduan, berri, txostenak banatzen ditugu: kokapenak, entsegu egunak, ordutegiak eta abar.

Batzordea ere osatu duzue. Zeintzuk izan dira eragin dituen aldaketak?

Batzordea osatzea pauso garrantzitsua izan da, eta beharrezkoa. 2025eko danborradarako bi proposamen jarri ditugu mahai gai-

nean. Alde batetik, irteerako ordena banaka aldatu beharrean, bosnaka aldatzea. Ikusten genuen banaka aldatzean, talde batek urte asko eman behar zituela danborradaren hasiera edo bukaera inguruan (denbora asko plazan edo urte askoan kiosko atzean...). Ordena bosnaka aldatzeak egoera hori hobetuko duela iruditzen zaigu. Bestetik, bandera jaitsieran, sei taldetik zortzi talde izatera pasatu nahi dugu.

Proposamen horiekin, talde guztien ordezkariekin elkartuta, otsailean egingo dugun balorazio bileran erabakiko dugu zer egin. Baditugu mahai gainean lantzeko

«Herritar eta eragile askok parte hartzen dute festetan, eta horiek gabe ezinezkoa litzateke jaiak aurrera ateratzea»

«Festez gozaten saiatzen naizen arren, askotan kezkek ez didate behar bezala disfrutatzen uzten»

beste zenbait puntu, baina hori aurrerago egingo dugu.

Danborradaren egunean plaza herritarrez beteta egoteak zer sentiarazten dizu?

Momentu hunkigarria izaten da, batik bat gauerdikoa. Balkoitik begiratu eta plazan hainbeste jende eta halako giroa ikustea izugarria izaten da. Umeek ere egundoko ilusioa izaten dute danborradan ateratzeko, eta San Sebastian eguna ere ederra izaten da. Gehienontzat, umetako oroitzapenetako bat izaten da danborradan ateraginen eguna.

Ba al dago lekurik talde gehiagorentzat?

15-20 talde ateratzen zirenean ere, plazan lekurik ez zegoela esa-

ten zuten. Orain 30 talde ateratzen dira, eta sartzen dira, nahiz eta ikusle gutxiagorentzat egon lekua. Hurrengo urtean beste danbor talde bat gehiago aterako da; beraz, 31 izango dira. Momentuz, beste talde bat sartzeko lekua badagoela aurreikusten dugu, eta datozen urteetan talde gehiagok egiten badute eskaera, ikusiko dugu nola bideratu.

Ikaragarria eta pozgarria da danborradak duen parte hartzea, eta horri duen balioa eman behar zaio. Ateak ez dizkiogu inori itxi, eta talde berriak ere ongietorriak izango dira.

Talde gehiago parte hartzea animatuz gero, zeintzuk izan daitezke irtenbideak?

Momentuz, plazan sartzen gara. Talde gehiago animatuko balira, eta plazan sartzeko zailtasunak izango bagenitu, aukerak aztertu beharko genituzke. Danborradaren historian, hainbat aldaketa edo froga egin izan dira. Alternatibak talde guztien artean landu eta erabakiko dira, tokatzen den garaian.

Ostiralean eta larunbatean izango dira aurtengo sansebastianak. Kanpoko pertsona gehiago etorriko direla aurreikusten al duzue?

Asteburua izanda, posible da kanpoko jendea etortzea. Eguraldiak ere eragin handia du. Urtero bezala, ziur gaude kanpoan bizi diren azpeitarrak asko etorriko direla. **Zeuk nola biziko dituzu aurtengo jaiak? Lanaz gain, festarako tarterik hartuko al duzu?**

Lan egitea eta toki askotan egotea tokatuko zait, baina aurkituko ditut nire momentuak.

Azpeitarrak jaietzeko mezu bat...

Bakoitzak bizi ditzala festak nahi dituen bezala, nahi dituenarekin, aske eta libre, eta errespetuz.







Iritzia
Martxial Elorza

Ardozaleak taldeko kidea

Festarik gustukoena

Gogoan ditut oraindik nire lehen pausoak danborradan. 8 edo 9 urte izango nituen lehenbizikoz parte hartu nuenan. Danborra jotzen ez nuen irten, sukaldeko tresneriak eramaten baizik: sardexka edo koilara, baina berdin-berdin egin genituen entseguak. Oargik antolatzen zuen festa hura, eta gaur egun, San Martin egoitza den eraikinaren azken solairuan egiten genituen entseguak.

Handik urte batzuetara, kuadrillakook taldea sortzea erabaki genuen. Eperra tabernaren eskutik irten ginen arren, arrantzalez jantzi ginen, eta une hura izan zen Ardozaleak

«Nork esango zidan 8 urte nituenean Azpeitiko plaza leporaino beteta ikusiko nuela danborrada batean?»

taldearen sorrera. Ondorengo urteetan sortu genuen Ardozaleak elkarte, eta elkarteko hainbat kide Donostiara joan ginen jantziak osatzera: Napoleoi gorriak. 50 urte igaro dira ordutik. A zer abiada!

Iaz jaso genuen urte horien guztien gorazarrea, azpeitiarren eta udalaren omenaldiarekin. Hunkigarria izan zen udaletxeko balkoira igo eta plaza bete-beteta ikustea. Nork esango zidan 8 urte nituenean Azpeitiko plaza leporaino beteta ikusiko nuela danborrada batean? San Martin eraikineko entsegu haiek Azpeitiko San Sebastian festen hasierako uneak izan ziren, eta inoiz ez nuen pentsatu gaur egungo festa bilakatuko zirenik.

Sansebastianak urteko nire egunik eta festarik gustukoena dira; dudarik gabe, gainera. Azpeitiko kaleetan zehar danborrada eta sokamuturra ikustea pozgarria da niretzat. Azpeitia sansebastianak dira.



Iazko danborradako une bat.

Azpeitiarrak plaza kolorez betetzeko prest

Aurten ere 1.500 herritar baino gehiago elkartuko ditu San Sebastian bezperako helduen danborradak. Dena pronto dute dagoeneko.

Azpeitiarrak dagoeneko gogotsu daude sansebastianak ospatzeko. Haien urteko festarik kutunenak iristear dira, eta dena prest dago herrian 24 orduko festaz gozatzeko. Danborrak eta barrrikak ozen joko dituzte azpeitiarrek, urteko

aurreneko festa handia behar bezala ospatzeko. Festa giroa eta danbor hotsak nagusituko dira Azpeitian bi egunez.

Urtarrilaren 19ko festa eguerdian hasiko da: ile apaindegietan izango dira gaueko danborren desfilean aterako diren kantinerak eta banderadunak; soziedadetan afariak prestatzen eman-

go dituzte azken orduak; eta soinu teknikariak-eta Perez Arregi plazatxoan pantaila erraldoia muntatzen eta kaleko megafoniaren soinu probak egiten arituko dira.

Ordua iristearrekin batera, berriaz, Azpeitiko kaleak herritarrez beteko dira helduen danborradaz gozatzeko. Desfilea Olazko Andre

Mariaren plazaren ondotik abiatuko da, 22:00etan, eta parte hartuko duten 30 taldeak honako hurrenkera honetan ibiliko dira kalez kale Alde Zaharrean: Oñatzbideko gastadoreak, Txalintxo, Arauntza, Sanjuandegi, Izarraitz Txoko, Zokoa, Basazabal, Ziripot, Landeta Egizale, Alkartasuna, Ollagorra, Loiolabide Zahar, Zulozabal, Loiolatxo, Itsasi, Harkaitza, Etxera, Arrantzaleak, Gure Ametsa, Ardozaleak, Iraurgi Saskibaloia, Mendizaleak, Barratsu, Zezenzaleak, Barrerentxea, Ilunpe, Inpernue, Izarraitz-pe, Oilo-Soro eta Irrintzi. Guztira, 1.500 herritar baino gehiagok parte hartuko dute desfilean, 30 taldetan banatuta.

Goikokalen eta plazan behera, Done Jakue kaletik iritsiko dira

taldeak parrokiara eta Perez Arregi plazara, eta bi toki horietan kokatuta joko dute aurreneko aldiz San Sebastian martxa. Gaueko lehen geldialdiaren ondotik, Elizkalea eta Enparan kalea pasatu eta Perez Arregitik Erdikalean gora igoko dira plaza-raino. Talde guztiak plazan direla eta gauerdiko kanpaiekin batera igoko dute herriko bandera udaletxeko balkoi nagusian.

UKTk zuzenean

San Sebastian bezperako helduen danborradaren zuzeneko eman-kizuna egingo dute Urolako Komunikazio Taldeko hedabide diren Uztarrria Gukak webgunean -uztarrria.eus- eta Erlo Guka telebistak.

Saioa 21:30 aldera hasiko da,



Iritzia
Idoia Eguren

Etxera taldeko kidea

Mutrikuar bat danborradan

nintzen iaz, Etxera taldearekin irtengo naiz aurten, eta Etxera taldearekin irteteko asmoa dute aukera izaten dudan guztietan, jada etxeokak baitira niretzat, eta beraiekin irudikatzen baitut momentu hori. Eta aurten iazkoaren erdia gozatzen badut, nahikotzat joko nuke.

Aitorpenekin hasita, eta neure burua bihar bertan herriitik botatzeko arriskuan arren, esan beharra daukat sansebastianak ez direla gehien markatu nauten jaiak, baina ezin dut ukatu iazkoan ikaragarri disfrutatua nuenik, lagunez inguratuta danborra jotzen irtete hor oso ederra baita. Afaria, kaleko momentuak, geroko parranda... ezingo nuke une bakar bat aukeratu, bat bestea gabe motz geldituko litzatekeelako. Eta azpeitiar sentipenari dagokionez, nire azentuarekin ez dut uste benetako azpeitiar izatera sekula ailegatuko naizenik, baina badira momentuak paper horretan sartzen naizenak. Hori bai, nahiz eta urteren batean Etxera taldeetik kanpo geratzeak pena handia emango lidakeen, are pena handiagoa hartuko nuke urterotero taldearekin irten den norbait kanpoan geratzeak, eta kasu horretan, herritarrei tokia uztea besterik ez litzaidake geldituko. Aurtengoan, ordea, hor izango naiz, eta falta direnekin ahaztu gabe, zoragarri pasatu dezagula denok!

Apirilean lau urte beteko dira Mutrikutik (Gipuzkoa) Azpeitira bizitzera etorri nintzela, pandemian sartu eta segidan, beraz; kasualitatez edo ez, Olatz auzora, Mutrikun ere badaukagu-eta Olatz auzoa. Eta hori bakarrik ez: Mutrikun ere badaukagu danborra, Malen jaietan helduena, eta Kalbario jaietan umeena eta jubilatua. Beti parte hartu izan dut haietan, saxofoia eskuetan, herriko bandarekin.

Eta Azpeitian ere, aukera sortu zitzaidan lehenengoan parte hartzea erabaki nuen. Lehenengo bi urteetan ez, pandemia tarteko ez zelako danborradarik egin; baina iaz, bai. Aukera handirik ere ez nuen izan: danborradan irten eta jaiak barrutik bizi, edo kanpoan gelditu gogoarekin. Eta noski, barrura, bi bider pentsatu gabe! Etxera taldearekin irten

eta Nerea Arakistain eta Iñaki Odriozola kazetariak gidatuko dute. Bi aurkezleekin hizketan izango da hainbat gonbidatu berezi; besteak beste, zuzeneko

saioan parte hartuko dute Nagore Alkorta alkateak eta Mikel Odriozola Festa batzordeburuak nahiz Aitor Exposito umeen danborradako karrozaren diseinatzaileak.

Danborrada zuzenean jarraitzeaz gain, erreportajeak ikusteko aukera izango dute ikusleek. 00:30ean amaituko da zuzeneko saioa.

Softekin
INFORMATIKA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Iberotarren Plaza 8 behea 20730 AZPEITIA - GIPUZKOA • 943-81 51 51 • softekin@softekin.com

www.softekin.com

Amenabar

ondo pasau
sansebastianak!

Eliz-kale 32 Azpeitia
943 150697/685110703
www.amenabardecoracion.com



haur jantziak
arantxa
jose de artebe kalea, 11
943-81 24 29
20730 azpeitia
gipuzkoa

ondo pasau sansebastianak!



aisialdi
GASTRO-TOKIA
Ondo pasau sansebastianak!

f aisialdi gastro-tokia ☎ 943 14 20 39

biur@hotmail.es
Erdi Kalea z/g
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-15 18 09



biur
ondo pasau
sansebastianak!

Lololako Ignazio Hiribidea, 13 behea
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 15 11 · 609 479 273
cmazplazu@agencia.axa-seguros.es



aseguruak / berrasmatzen

**ondo pasau
sansebastianak!**



12 • Helduen danborrada

UZTARRIA GUKA

Asteartea, 2024ko urtarrilaren 16a

Oñatzbideko gastadoreak



Sorrera. Gastadoreak 1959an atera ziren lehen aldiz. Danbor taldea, berriz, 2012an irten zen aurreneko aldiz.

Janzkera. Frantziako militarren jantzia: galtza zuriak, urre koloreko galoidun jaka gorri-urdinak eta buruko beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Irrintzi



Sorrera. 1975. urtea.

Janzkera. Sukaldari jantzia: galtza laukidunak, jaka zuriak eta buruko eta zapi zuriak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Txalintxo



Sorrera. 1979. urtea.

Janzkera. Pilotari jantzia: galtza zuriak, kamiseta eta gerriko urdinak zein gorriak eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Arauntza



Sorrera. 1970. urtea.

Janzkera. Kosako jantzia: beroki gorriak, kamiseta zuriak eta buruko beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Sanjuandegi



Sorrera. 1992. urtea.

Janzkera. Karlista jantzia: galtza eta txapel gorriak, jaka berdeak eta motxila zuriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Izarraitz Txoko



Sorrera. 2007. urtea.

Janzkera. Txistulari jantzia: jaka, galtza, lepoko eta buruko beltzak; galtzerdi zuriak eta txaleko gorriak.

Danborra ala txapa. Danborra.



Zokoa

Sorrera. 1992. urtea.
Janzkera. The Royal Scots britaniar erregimenduaren traje militarra: galtza zuriak, jaka gorriak, eta polaina eta buruko beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.



Basazabal

Sorrera. 2008. urtea.
Janzkera. Sukaldari jantzia: marra zuridun galtza beltzak, jaka eta txapel zuriak zein aurreko mantal eta zapi beltzak.
Danborra ala txapa. Txapa.



Ziripot

Sorrera. 2008. urtea.
Janzkera. Mikelete jantzia: galtza eta jaka urdin ilunak, txaleko eta txapel gorriak eta zapi berdeak.
Danborra ala txapa. Danborra.



Landeta-Egizale

Sorrera. 1966. urtea.
Janzkera. Baserritar jantzia: alkandora zuriak, txaleko granatak, galtza grisak eta txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Txapa.



Alkartasuna

Sorrera. 1967. urtea.
Janzkera. Eskoziar jantzia: Eskozian jai egun eta gertakari garantzitsuak ospatzeko jantzen den trajea.
Danborra ala txapa. Danborra.



Ollagorra

Sorrera. 2011. urtea.
Janzkera. Tranpa jartzaile jantzia: jaka eta polaina marroiak, galtza beixak, txapel beltzak eta zapi gorriak.
Danborra ala txapa. Txapa.

JON ESNAOLA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Jose Artetxe 6-behea • Azpeitia, Gipuzkoa
info@jonснаola.eus • M. 647 65 45 06

REFORMAS EUGENIO

OFERTA

672 60 06 06 Eugenio

Ondo pasau sansebastianak!

agirre

oparidenda

atera danbor hotsak!

erdi kale, 1 • 943-81 13 25 • azpeitia

ERROTAUNDI
Okindeja

ondo pasau sansebastianak!

Euskal Herria Kalea, 34 • 943-81 61 79

ETXE ZVRI
T A B E R N A

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Perez Arregi Plaza - Azpeitia
943-02 68 56



14 • Helduen danborrada

UZTARRIA GUKA

Asteartea, 2024ko urtarrilaren 16a

INNOVA
HORTZ KLINIKA
Ondo pasau sansebastianak!

Jose Artetxe, 5 · 943-02 59 55 · 625 19 58 85

korrale
taberna
Ondo pasau sansebastianak!

Erdi kalea 27, Azpeitia | 943-81 06 01

Ongi Etorri
J A T E T X E A
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Salbe Auzunea, 21 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 150 869

Donejakue kalea, 6 tel.: 943-8118 24
20730 azpeitia (gipuzkoa)

orrazkerak
INAXITA
ile-apaindegia
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Alar
Loiolako Inazio Hiribidea 17
943-50 32 10
AZPEITIA

ondo pasau sansebastianak!



Sorrera. 2011. urtea.
Janzkera. Sukaldari jantzia: galtza beltzak, jaka horiak eta txapel nahiz aurreko mantal marradun hori-beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Sorrera. 2011. urtea.
Janzkera. Beefeater zaintzaile jantzia: urrezko ukitudun galtza eta jaka gorriak eta galtzerdi zein txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Sorrera. 2011. urtea.
Janzkera. San Inazioen garaiko militarren eta zibilen jantziak: militarrek traje zuri-urdinak, zilarrezko kaskoak eta armadura eta polaina marroiak; zibilek traje more-berdeak eta txapel eta polaina marroiak.
Danborra ala txapa. Danborra eta txapa.

Sorrera. 1984. urtea.
Janzkera. Soldadu frantziarren (gizonak) eta urketarien (emakumeak) jantziak: soldaduek galtza zuriak, jaka berdeak eta txapel eta polaina beltzak; urketariek gona beltzak, blusa zuriak eta aurreko mantal eta zapi grisak.
Danborra ala txapa. Danborra eta txapa.

Sorrera. 1979. urtea.
Janzkera. Husan soldaduen tronpeta jotzaileen jantziak: jaka horiak, kapa berdeak, galtza zuriak eta polaina zein txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Sorrera. 1981. urtea.
Janzkera. Baserritar jantziak: emakumeek gona beltzak, blusa zuriak, marradun txalekoak, lepoko zapi berdeak eta buruko zuriak; gizonek marradun galtzak eta txalekoak, alkandora eta zapi zuriak, gerriko berdeak eta txapel beltzak
Danborra ala txapa. Txapa.



Arrantzaleak



Sorrera. 1969. urtea.

Janzkera. Arrantzale jantzia: eurritako horiak, alkandora eta galtza urdinak, arrantzaleen lepo-koak eta katuska zein txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Gure Ametsa



Sorrera. 1966. urtea.

Janzkera. Sukaldari jantzia: jaka eta txapel zuriak eta galtza eta zapi grisak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Ardozaleak



Sorrera. 1971. urtea.

Janzkera. Napoleoi jantzia: jaka gorriak, galtza zuriak eta txapel eta polaina beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Iraurgi SB



Sorrera. 2017. urtea.

Janzkera. Sukaldari jantzia: galtza eta zapi zuriak, jaka granateak eta aurreko mantal zein txapel marradun zuri-granateak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Mendizaleak



Sorrera. 1974. urtea.

Janzkera. Tirolar jantzia: blusa eta galtzerdi zuriak, galtza motz eta txapel beltzak zein tirante gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Barratsu



Sorrera. 1981. urtea.

Janzkera. Antzinako meatzari jantzia: artilezko galtzerdiak, galtza motz eta abarka beltzak nahiz alkandora, gerriko eta txapel berdeak eta txaleko laranja.

Danborra ala txapa. Danborra.

TOPD

ondo pasau
sansebastianak!

Erdikale 28 • 943-81 11 67 • AZPEITIA

ERAIKUNTZARAKO MATERIALEN SALMENTA

LOREO, S.L.
MAKINERIA IGOGAILUEN ALOKAERA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

ELIZ K/ 38. AZPEITIA
TEL./WAPP.: + 34 655 74 6140
NINAIZYOGA@GMAIL.COM
WWW.NINAIZYOGA.COM

ninaiz
yoga zentroa

Arimaren, buruaren eta
gorputzaren arteko oreka

GOZATU SANSEBASTIANEZ!

INAR (ear icon)
OPTIKA-AUDIO

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Jose de Artetxe 10 bajo • Azpeitia • 943-03 89 49
info@inaroptika.eus

ondo pasau
sansebastianak!

Tindategia
Sagarna

• Berezitasuna lehorreko garbiketari
• Nordikoak, mantak, edredoiak eta qortinen qarriketa berezia

Ildefonso Gurrutxaga, 3 • tel.: 943-02 66 81

KOTOI

— mertzeria —

ondo pasau sansebastianak!

FORU IBILBIDEA, 3 BEHEA • AZPEITIA • 646 00 33 90

Lxaxarki

ESTETIKA ZENTROA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Elizkale, 44 • Tel: 943-81 19 32 • xaxarkiestetika@gmail.com

main

tabernakoen partetik,
ondo pasau
sansebastianak!

Eliz kale 5, beheka - AZPEITIA - 943-88 78 56

L4U BIDE

JATETXEA

ondo pasau
sansebastianak!

Landeta Hiribidea, 2 • Azpeitia • T. 943-81 68 78
www.laubidejatetxea.com



JOSTALDI KIROLAK

ONDO
PASAU
JAIK!

Euskalerria, 31 • 943-15 16 39
www.jostaldikirolak.com



16 • Helduen danborrada

UZTARRIA GUKA

Asteartea, 2024ko urtarrilaren 16a

Zezenzaleak



Sorrera. 1967. urtea.

Janzkera. Landetako euskal toretzaile jantzia: galtza zuriak, jaka urdin ilunak, alkandora zuriak eta txapel eta gorbata gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Julian Barrenetxea



Sorrera. 2002. urtea.

Janzkera. XVIII. mendeko musikari jantzia: galtza motz beltzak, galtzerdi zuriak, jaka laranja, hautseztatutako ileordeak, txapel beltzak eta parpaoladun blusak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Ilunpe



Sorrera. 2020. urtea.

Janzkera. Zuberoako maskaradako jantzia: galtza motz beltzak, galtzerdi zuriak, jaka gorriak eta zuriak zein txapel gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Inpernue



Sorrera. 2020. urtea.

Janzkera. Gipuzkoako tertzioko jantzia: pasamaneria gorridun eta urrezko haridun jaka urdin ilunak, galtzerdi urdinak eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.

Izarraitzpe



Sorrera. 2020. urtea.

Janzkera. Urolako treneko langileen jantzia: galtza zuriak, erremate gorridun jaka beltzak eta txapel gorri-beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Oilo-Soro



Sorrera. 2004. urtea.

Janzkera. Nafarroako Erriberako artzainen jantzia: galtza beixak eta grixak, galtzerdi zuriak, txaleko urdin ilunak, alkandora beixak eta buruko zapi gorriak.

Danborra ala txapa. Txapa.




*Ondo pasau
sansebastianak!*





Irteera



Danbor taldeen irteera hurrenkera:

- 1.- Gastadoreak
- 2.- Txalintxo
- 3.- Arauntza


- 4.- Sanjuandegi
- 5.- Izarraitz Txoko
- 6.- Zokoa
- 7.- Basazabal
- 8.- Ziripot
- 9.- Landeta-Egizale
- 10.- Alkartasuna

- 11.- Ollagorra
- 12.- Loiolabide Zahar
- 13.- Zulozabal
- 14.- Loiolatxo
- 15.- Itsasi
- 16.- Harkaitza

- 17.- Etxera
- 18.- Arrantzaleak
- 19.- Gure Ametsa
- 20.- Ardozaleak
- 21.- Iraurgi SB
- 22.- Mendizaleak
- 23.- Barratsu

- 24.- Zezenzaleak
- 25.- Barrenetxea
- 26.- Ilunpe
- 27.- Inpernue
- 28.- Izarraitzpe
- 29.- Oilo-Soro
- 30.- Irrintzi


Parrokian





Herriko plazan

UDALETXEA



AZOKA PLAZA



MENDIZABAL
AZPEITIKO ERRETEGIA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK

Landeta Hiribidea, 16 - AZPEITIA - 943 81 20 01

ELIKAGUNEA
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Plaza nagusia 11 • AZPEITIA • 688 68 86 96 • info@elikagunea.eus
www.elikagunea.eus

Mendata
ESTUDIO GRAFIKOA



Urbite, 8 - beheka | T. 943 38 84 81

WEB DISEINUAK
WEB MANTENUA
KARTELAK
FLYERRAK
LOGOAK
SARE SOZIALAK
MENUAK
GONBIDAPENAK
INPRIMAKETAK
ESKANEOK

...
mendataestudio@gmail.com

Jim Clark
TABERNA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Euskal Herria Kalea, 33
943-08 00 89

EGURTZA
INMOBILIARIA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

info@egurtza.com
www.egurtza.com • 943-82 90 74 • Erdi Kalea, 21 • AZPEITIA

«Urtean behin izaten da danborrada, eta horrek badu bere xarma»

ESTANIS IRIARTE • Izarraitz Txoko taldeko zuzendari berria

Estanis Iriarte (Azpeitia, 2001) da Izarraitz Txoko elkarteko zuzendari berria. «Lotsa gutxi» duen pertsona dela onartu arren, «urduritasun puntu bat» izango duela uste du Iriartek San Sebastian bezperan.

Izarraitz Txokoelkarteko zuzendari berria zara. Nolatan iritsi zara ardura horretara?

Izarraitz Txoko elkarteko bazkide naiz, eta egun batetik bestera gertatu zen zerbait bezala gogoratzen dut zuzendari izateko kontua. Bazkide batzuek komentatu zidaten zuzendariak utzi egin behar zuela, eta nik hala nahi izanez gero, zuzendari berria izateko aukera izango nuela. Ez zen zerbait ofiziala izan, baina egia da nik gustuko nuen eta egin nahiko nukeen zerbait zela. Izan ere, beti pentsatu izan dut zuzendari iritea gustatuko litzaidakeela. Horrela, zuzendari berria izateko prozesua abiatu zuten, eta nire burua aurkeztu nuen. Pertsona askok izena emango zuten beldurra banuen; entzun izan dut hainbat elkartetan txandaka egiten duten zerbait dela, baina zortez, ni bakarrik aurkeztu nintzen.

Gustura, beraz?

Oso oker ez banago, haurra nintzela, urte batez izan nintzen zuzendari eskolan. Baina ez kaleko danborradan, ikastetxeetan bertan egiten diren horietako batean baizik. Kaleko danborradarako hainbat urtetan eman nuen izena gero, Izarraitz Txokoko zuzendari txiki izateko ere urte askotan, eta alde guztietatik oso ondo joan da prozesua.

Esperientziarik ba al duzu zuzendari gisa?

Oso oker ez banago, haurra nintzela, urte batez izan nintzen zuzendari eskolan. Baina ez kaleko danborradan, ikastetxeetan bertan egiten diren horietako batean baizik. Kaleko danborradarako hainbat urtetan eman nuen izena gero, Izarraitz Txokoko zuzendari txiki izateko ere urte askotan, eta alde guztietatik oso ondo joan da prozesua.

Eta danborra jotzen?

Bai, Batxilergoa egiten ari nintzen helduen danborradan lehendabizikoz danborra jotzen irten nintzenea. Bizpahiru urtetan jo dut danborra.

Entseguetan buru-belarri al zabilta? Edo aurrez kontrolpean zenuen guztia?

Danborrada berezia da niretzat, eta aspalditik dakizkit abestiak. Kantuak ez dira sekula ahazten. Baina egia da, zuzendari izango nintzela ziurtatu zenean, abestiak entzuten hasi nintzela, detaile txikietan arreta jarritz. Bada denbora etxean entseatzeko ari naizela.

Entsegu ofizialetara lasai iristeko moduan zara, beraz.

Bai, hori da asmoa, entseguetan lasai ibiltzea, edota saio horiek azken zalantzak argitzeko bakarrik izatea.

Zuzendari batek zer ezaugarri behar ditu?

Ez dut uste ezer berezirik behar denik, baina lagunek esan izan didate zoratuta nagoela. Eta, agian, danborrada bezalako festa batean, 60 bat pertsonako talde handi bat zure atzetik izateko, lotsa gutxi edo zoro puntu behar duzu. Eta nik betetzen dut hori... Azkenean, herri osoaren aurretik igaro behar duzu, bakarrik, taldearen aurrean, eta jendea zuri begira egotea ez zaizu axola behar. Horrez gain, gogoia behar da. Urtean behin egiten den zerbait da, eta gogorik gabe egitea baino hobea da ez iritea.

Zer moduzko taldea duzula esango zenuke?

Oso ona. Txikitik danborrada kaletan ikusten nuen garaiko eta bistaz ezagutzen ditudan hainbat kidet jarraitzen dute danborra jotzen, baina azken urteetan gazte

asko batu da taldera. Belaunaldi aldaketa nabari da dagoeneko, eta zentzu horretan, talde ona da. Hala ere, taldeak ez nau kezkatzen.

Eman al dizu aholkurik aurreko zuzendariak?

Ez. Jantzi trukaketa egiteko dugu, eta oraindik ez naiz berarekin elkartu. Zeregin hori ez genuela gehiegi atzeratuko esan genuen, baina beti gertatzen den moduan, ikusten nago azken momentuan egingo dugun zerbait izango dela. Baina ea jantziaren aitzakian berarekin hitz egiteko eta gomendioak jasotzeko aukerarik dudatzen.

Danborradako zein pieza duzu gustukoena?

Goizeko Izarra.

Eta zein da zuzentzeko zailena?

Nire iritzi, orokorrean gaizkien jotzen den abestia *Soreasuko Sebastian* da; alde handiarekin, gainera. Danborra jotzen iritertzen nintzenea nik ere ez nuen oso ondo joko, baina beti pentsatu izan dut, entseguetan naiz kalean, desastre ateratzen den abestia dela. Erritmo berezia du, beste kantekin alderatuz gero, motelagoa, eta danborradaren egunean erritmo azkarragorako joera hartzen dugu denok.

Eguna gerturatzeko ari da. Urduritasuna ere gehitzen ari al da? Lotsa handirik ez duzula aurreratu duzu, baina...

Oraintxe bertan, ezetz esango nuke, baina eguna iristean ikusi beharko dugu. Urduritasun puntu bat izango dudala uste dut danborradako egunean, baina ez dakit. Entseguetan agian urduriago egongo naiz; ea nola joaten diren entseguak, eta ondo joanez gero, lasaiago aterako naiz egunean bertan.



Zer du San Sebastian jaiak berezia zuretzat? Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Urtean behin izaten da danborrada, eta horrek badu bere xarma. Beste herri askotan egiten dituzte danborradak, baina horietako inork ez du Azpeitian duen indarra; Donostiakoa kenduta, noski. Herri askotan egiteak baina berezia Azpeitian bakarrik izateak ematen dio ukitu berezi hori. Nire ustez, urteko

datarik garrantzitsuenetakoak dira sansebastianetakoak, inauterietan batera, eta, galdetuz gero, azpeitiar gehienek gauza bera esango lukete. Azpeitiarron parte hartzea eta gogoia dira danborradan emozio hori lortzeko gakoak. Azkenean, 1.500 herritarrek parte hartu ohi dugu, eta beste hainbestek nahiko lukete parte hartu. Danborrada herri askotan egin arren, ez da Azpeitian sortzen den giroa sortzen.

Danborradan zuzendari lana egiteaz gain, sansebastian festaz gozatzeko asmorik ba al duzu?

Bai, noski. Gainera, ostirala egokitzen denez, izango dut aukera gero festaz gozaten jarraitzeko. Banderaren jaitzieran irtetea ez zaigu tokatzen aurten; larunbatean izango denez, bozketa egin dugu gure taldea atera edo ez erabakitzeko, eta ezezkoak irabazi du.



G
GERTU
- Lurrindegia -

Erdikale Kalea, Z/G • AZPEITIA
943 81 43 58 • gertulurrindegia@gmail.com

CENTERPOINT

ENGLISH ACADEMY

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

✉ 943-81 65 03 - www.centerpoint.eus

MOTX

ileapaindegia

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Eliz Kalea, 17 • AZPEITIA • 943-81 07 54

ZUAR
kafetegi - okindegia



— azpeitia —

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Loiolako Inazio Hiribidea 79, behea
tel 943-53 20 42 • zuarazpeitia@gmail.com



**JATETXEA
LANDETA
SAGARDOTEGIA**

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Tel.: 943 81 09 59 • Landeta Auza, 12 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



Zergatik etortzen zara sansebastianetan Azpeitira?

Ekaitz Martinez



«Bi anaiekin batera jantzia egina dut dagoeneko, eta aurrerantzean beti hortik irteteko asmoa dut»

Ordizian (Gipuzkoa) bizi da Ekaitz Martinez azpeitiarra, eta urtero etortzen da Azpeitira San Sebastian bezperako danborradan parte hartzera.

Herriko danborradako talde ugari igaro ditu Martinezek: 17 urterekin Irrintzi taldean irten zen osabarekin batera, beste bi urtetan Etxera taldeko kide gisa parte hartu zuen danborradan, eta azken Oilo-Soro elkartearekin ere ateratakoa da zazpi edo zortzi urtez jarraian, lagun batek jantzia utzi izanari esker.

Gaur egun, ordea, Ilunpe elkartetik irteten da. 2020an atera zen lehenbizikoz danborradan Ilunpe taldea. Gero, ordea, bi urtetan ez zen festarik izan COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, eta ia, 2023an irten zen bigarren aldiz. «Oraingoan talde finkoa dut. Bi anaiekin batera jantzia egina dut dagoeneko, eta aurrerantzean beti hortik irteteko asmoa dut».

Ikaragarri gustatzen zaion festa da, eta aitortu du izuga-

rri gozatzen duela danborradan. «Arratsaldetik taldeko kideekin biltzea eta horiek izaten duten gogo berezi hori ikustea da niretzat ederra. Festarako gogoa izaten da, umore ona, eta horrek guztiak dena borobiltzen du. Horrez gain, geroko danborradako unea ere berezia da, nik asko gozatzen dut danborra jotzeko unea, asko gustatzen zait, eta txapa hotsa ere gustatzen zait. Beraz, dena gustatzen zait, afal aurreko uneak, afari garaikoak eta ondorengoak».

Eli Porras



«Emozio handia sentiarazten dit danborradak, gauerdiko plazako uneko horrek bereziki»

Betidanik Itsasi taldearekin atera da danborradan Eli Porras. Txikia zela euskal dantzak ikastera joaten zen elkarrekin antolatutako ikastarotara, eta hor hasi zen bere lotura dantza eta kultur taldeko danborrada taldearekin. Izan ere, txikitik umeen dan-

borradan parte hartzeaz gain, gaur egun helduen taldean jotzen du danborra. Beraz, urte asko daramatza danborradan irteten.

Aian bizi da azpeitiarra, Elkano auzoan zehazki, nahiz eta eguneroko bizitza Zarautzen

egiten duen. Urtarrilaren 19an, ordea, urtero Azpeitirako bidea egiten du, San Sebastian jaien ospakizun nagusian parte hartzeko asmoz. «Normalean ez dut arazorik izaten afarirantz iristeko, baina oso goiz izaten da eta noizbait gertatu izan zait danborradara joatea,

afaltzera iritsi gabe», azaldu du.

Sansebastianak eta bezperako danborrada oso bereziak dira Porrasentzat: «Emozio handia sentiarazten dit danborradak, gauerdiko plazako uneko horrek bereziki. Kontuan hartu behar

da urte asko direla ez naizela bizi Azpeitian, eta egun hori izaten da berriro herrira itzuli eta azpeitiar sentiarazteko modu bat. Herriaren parte sentitzen naiz. Are gehiago, horrenbeste azpeitiar parte hartzen ari den festa izanik, danborra jotzen edota ikusle gisa».



Antxon Garmendia



«San Sebastian eguneko goizeko danborrada hori izugarria da. Ez dago horrelakorik»

Duela 40 urtetik bizi da Antxon Garmendia Oñatin (Gipuzkoa), baina ez du hutsik egiten urtarrilaren 19ko danborradan: «Orain jubilatuta nagoo eta ez dut arazorik, eta lehen, berriz, 19a eta 20a, bi egunak jai hartzen nituen sansebastianak ez galtzeko», esan du.

18 urte zituela, «duela urte asko», Irrintzi elkarteko taldearekin irten zen danborradan Antxon Garmendia. Orduetik, ordea, «eta urte asko igaro dira», Ardozaleak elkartearen izen du talde bakarra. «Ardozaleak elkartearen osatu genuen ondo-

ren, eta ordutik nire talde bakarra izan da», dio.

Ardozaleak taldeak, gainera, badu berezitasun txiki bat: San Sebastian eguneko goizean ere ateratzen da Azpeitiko kaleetara danborra jotzera, Gure Ametsako barriekin batera. «Gaztetan ez nintzen irteetan goizean, baina azken 20-30 urteetan ateratzen naiz, asko gustatzen zait-eta. Oñatin bizi naiz, eta egin izan dut 19ko danborrada bukatu eta etxera itzuli lo egiteko, eta goizerako berriro itzuli Azpeitira. Orain, ordea, koinataren etxean gelditzen naiz lotan, eta horrela, goizean mugitu beharrik ez dut izaten. Goizeko danborrada hori

izugarria da. Ez dago horrelakorik. Sansebastianetako unerik onena da parrokiaren barruan danborra jotzea eta egiten den soinua entzutea», agertu du.

Izan ere, Garmendia musikazalea da oso, eta hori da, hain zuzen ere, sansebastian festetatik gehien gustatzen zaiona: musika. «San Sebastian jaietako musikak hunkitu egiten nau, izugarri gustatzen zait; asko, gainera. Plazako une hori gauerdian eta San Sebastian eguneko parrokiaren barruan jotzen diren bi une horiek dira onenak», amaitu du.

Idoia Egiguren



«Azpeitiarrok, orokorrean, eta nik, bereziki, txikitatik bizi izan ditugu sansebastianak»

Getariatik etortzen da urtero danborradara Idoia Egiguren. Lanean bi txanda desberdinetan aritzen da, eta danborradako eguneko saiatzen da goizekoa egiten. «Kasu horietan 13:00etarako, gutxi gorabehera, libre izaten naiz, eta beraz, ez dut arazorik izaten. Bi alaba


ditut, ordea, eta hori ere kudeatu beharra izaten da. Senarrarekin gelditzen dira haurrak, berak ere badaki egun horretan egin behar hori duela... » adierazi du Egigurenek.

Ahizparekin batera irteten da Egiguren San Sebastian bez-

perako danborradan Irrintzi elkartetik, eta beti «oso ondo» pasatzen duela adierazi du. «Azpeitiarrok, orokorrean, eta nik, bereziki, txikitatik bizi izan ditugu sansebastianak: danborrada ikustera irtenda, ikastetxean danborra jotzen... Egun berezizat hartu izan

dugu beti. Egun bakarra da gainera, ez da beste festa batzuk bezala, egunetan ospatu behar dela. Danbor hotsa ere ederra da. Arrazoiagatik galdetuz gero, ez nuke ezer konkretuki esaten jakingo, baina asko gustatzen zaizkidan festak dira».

Danborrada gustatzeko arrazoi konkreturik izan ez arren, urtero-urtero Azpeitiko kaleak danborrarekin igarotzeko asmoa du Egigurenek aurrerantzean ere: «Irrintzi elkarteko taldean lekua dudana bitartean, beti etorriko naiz».



SANSEBASTIANETAKO LEHIAKETA

Zenbat dakizu danborradako taldeei buruz?

Uztarrria.eus webgunean

Urtarrilaren 15etik - 18ra


UZTARRIAGUKA



←
*Zuzenean
parte hartzeko*

KONTXI ARRANDEGIA

SARIA: KONTXI ARRANDEGIKO ARRANEZ ETA ITSASKIZ OSATURIKO OTARREA



ARITZ ARANBARRI

Lopeneren ganaduak, hamargarren urtez

Herri bakoitzean zein zezen bota aukeratzeko orduan, gauza asko hartzen ditu kontuan, baina Azpeitian bere zezenak botatzea "ohorea" dela ziurtatu du Josu Arregi ganadutegiaren jabeak.

Zestoako Lopene ganadutegiak duela hamar urteko sansebastianetan bota zuten bere zezenak aurrenekoaldiz Azpeitiko kaleetan. «Beste leku batzuetan bota izan nituen aurretik, eta Azpeitian 2013ko urrian antolatu genuen Zezen Beltz asteburuan ere bai, baina ez kale guztietan; beraz, bai, esan liteke 2014ko sansebastian-karnabaletan izan genuela estreinaldia Azpeitiko sokamuturrean², adierazi du Josu Arregi ganadutegiaren jabeak. Aurten, sansebastianetan eta karnabaletan ohi bezala, hiru ganadutegitako zezenak ibiliko dira herriko kaleetan, eta Arregik San Sebastian egunez eta Astearte Karnabalez botako ditu bereak. Zortzi zezen guztira; bat eguerdian, eta beste zazpiak arratsaldeko sokamuturrean.



- KONTXI - ARRAINDEGIA



Ondo pasau sansebastianak!

Foru Ibilbidea, 4 • AZPEITIA • 943-81 19 46 • Gesalaga, 4 • ZESTOA • 943-14 82 47



Azpeitian bere zezenak botatzea «ohorea» dela ziurtatu du Arregik. «Nire herria izateaz aparte, Euskal Herrian sokamuturrak indarririk handiena duen herria Azpeitia da, konparaziorik gabe, gainera». Horregatik, Azpeitira ekartzen duen ganadua «maitasun handiz» zaindu eta aukeratzen du. «Azpeitian botatzen ditudan zezenak kapritxo bezala ditut. Zezen horiekin, urteko kontuak aterata, dirua galtzen

«Azpeitian botatzen ditudan zezenak kapritxo bezala ditut»

«Euskal Herrian sokamuturrak indarririk handiena duen herria Azpeitia da, konparaziorik gabe»

ateratzen naiz; gero, haurrentzako ekitaldiekin-eta, konpentsatzen dut galera hori».

Herri bakoitzean zein zezen bota aukeratzeko orduan, gauza asko hartzen ditu kontuan. «Neuk hazitako animaliak dira, ondo ezagutzen ditut, eta badakit nola jokabidea izan dezakeen bakoitzak. Horrez gain, Azpeitiko plazak eta kaleak ere ondo ezagutzen ditut. Eta hain zuzen ere, bi horiek dira gakoak: animaliak eta lekuak ahalik eta ondoen ezagu-

tzea. Bi faktore horiek kontuan hartuta, leku bakoitzerako animalia egokiena aukeratzen saiatzen naiz».

Aurtengoa hamargarren urtea izango badu ere, badaki bere zezenak kalean ikusi aurreko orduetan urduritasunak hartuko duela. «Aurreko egunetan-eta ez, baina animaliak kamioira kargatzeko garaian-eta, harik eta lehenengo ganadua kalean ikusi arte, tentsio handiko uneak bizitzen ditut». Baina behin lehen zezena bota-

tzen duenen, kito; «gero, arratsalde segituan pasatzen da».

Une gaziren bat bizitzea egokitu zaiola aitortu du, hala ere. «Duela urte batzuk, astearte batek neure lagun bat harrapatu zuen plazan. Kolpe handia hartu zuen buruan, konortea galdu zuen, eta, gerora ere, errekupe-ratzea dezente kostatu zitzaion. Horrelakoak ez dira atseginak izaten, baina, zorionez, eta dut beste susto handirik izan».



DECO-RAMIK

www.decoramik.com

✉ decoramik@decoramik.com

☎ 943 81 48 22

📷 decoramik_

Ondo pasau sansebastianak!



JARRAITU SANSEBASTIANAK 2024

UZZARRIA.EUS-en

BERTAN DUZU FESTARI LOTUTAKO INFORMAZIO GUZTIA



SANSEBASTIANAK
2024
azpeitia



BieleGroup

PASSION FOR CHALLENGES



Ondo pasau sansebastianak!

50 URTEZ UROLA BAILARAN
ELKARREKIN HAZIZ

Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 · 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa (España)

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com



Metro gutxitan, Kilometroak



2 024ko Kilometroak Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibak antolatuko ditu. Urriaren 6an izango da Gipuzkoako Ikastolen jai handia, eta Azpeitian egiten den laugarren aldia izango da: 1979an egin ziren aurrenekoz Loiolan; 2000. urtean bigarrenez, *Hau da* leloarekin; eta 2011n

hirugarrenez, *Klik* leloean. Laugarren aldi honek eguzki lorea izango du irudi eta *Izpiz izpi* lelo.

«Aurtengo jaiaren txikira jotzea erabaki dugu. Ekintza xumeak eta helburu handiak izango ditugu. Horixe da geure buruari esan dioguna: euskara, kulturartekotasuna, aniztasuna eta herrigintza sustatuko

ditugula. Kilometro hauen ardatzak elikatuko dituzten prozesu eta ekintzak landu nahi ditugu», azaldu dute arduradunek.

Hala, lehen ekintza xumea baina helburu handia duena haurren danborradan ikusteko aukera izango dute herritarrek: Azpeitiko kaleetan barrena txikienek egingo dituzten

metroetan Kilometroak eginez. Horretarako, batetik, bi zutoihal edo estandarte prestatu dituzte banderadunaren ondoan eramateko, eta bestetik, danbor jotzaileek zapi bereziak eramango dituzte.

«Azkenean, urtean zehar antolatuko diren ekintzetan eta sor daitezkeen proiektu berrietan hiru ardatzek euren lekua izan

dezaten nahi dugu, barrura naiz kanpora begira egingo diren ekintza denetan. 2024ko Kilometroak jaiaren logoa den eguzki lorea erabiliko dugu horretarako, eta sansebastianen kasuan hori da egingo duguna; eguzki lorea txertatu zutoihale-tan eta zapietan», adierazi du Ikasberriko Kilometroak 2024ko koordinatzaile Gorka Besgak.



Etixerako instalakuntzak |

Argiteria | Bainuak

Sukaldeak | Lokalak

atera txispak festei!

Izarraitz auzoa, 66 | AZPEITIA
606 30 63 68 | axkiola@gmail.com

ikastola



Ondo pasatu sansebastianak!

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



ikastolen elkartea

Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943-15 12 46
ikasberri@azpeitikoikastola.eus • www.azpeitikoikastola.eus





Ondo pasau sansebastianak!

Iberotarren plaza 7 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 05 09 • obaholkularitza@ekonom.slak.eus

Ondo pasau sansebastianak!

Olatzko Amaren Plaza, 10 | 843 63 10 62
zuribeltz.ana@gmail.com | 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

GOZAU SANSEBASTIANAK!

GOIKO-KALE, 10 • 943-81 18 85 • LANDETA HIRIBIDEA, 19 • 943-81 50 09
www.eganagozotegia.com

Tel.: 943 81 15 94 - Foru Ibilbidea, 4. AZPEITIA.
Bertako haragi eta urdaikiak. Etxean aurrez prestaturiko jakiak.

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Zerbitzu Teknikoa

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Jose Artetxe, 8 behea | Azpeitia | 943-81 22 31
www.movitek.net



Iritzia
Maria Sarasua

Juan Antxieta musika eskolako ikaslea

Irribarrea ezin kenduta ahotik

Azken bi urtetan danborra jotzen irten ondoren, banuen goinoa zuzendari izateko. Beraz, oso gustura nago zuzendari izateko zortea izan dudalako. Are gehiago, Juan Antxieta musika eskolaren danborradako taldearen zuzendari izango nintzela esan

zidatenean, ezin kenduta ibili nintzen egun batzuetan irribarrea ahotik. Azken asteotan buru-belarri nabil entsegetan, baina gustura ari naiz egiten. Gainera, badakit ederki igaroko dudala egun handia. Aurreko urteetan ederki pasatu dut lagun artean eta oraingoan ere ondo pasatzea

espero dut, hori bai, urduritasun gehiago izango dut aurtten. San Sebastian eguna goizean goiz hasten dugu banda eta musika eskolako lagunekin kalejiran, eta gero, kalejira amaitutakoan, presaka joan beharko dugu danborradarako prestatzeko.

San Sebastian egunez, haurren danbor festa

San Sebastian egunez, 12:30ean abiatuko da haurren danborrada, Olazko Andre Mariaren plazatik. Alde Zaharrean barrena ibiliko dira partaideak eguerdira bitartean, eta karrozak itxiko du desfilea.

San Sebastian bezperan helduak izango dira kaleak danbor hotsez alaituko dituztenak, eta hurrengo egunean, berriz, etxeko txikienek hartuko dute erreleboa. Izan ere, hilaren 20an, haurrek eta gazte-txoek atabalak hartu eta gogotik joko dituzte danborrak eta barririk hurreriko kaleetan barrena. Urtarrilaren 20an, hamar taldek osatuko dute aurtengo umeen danborrada. Honako hauek dira talde horiek: Karmelo Etxegaraiako napoleoi gorriak, Iraurgi-ko Zumalakarregi taldea, Ikasberriko soldaduak, Iraurgi mikelteak, Karmelo Etxegaraiako

napoleoi urdinak, Juan Antxieta musika eskola, Karmelo Etxegaraiako Bizkaiko tertzioak, Itsasi, Iraurgi ezpatadunak eta Ikasberriko sukaldariak. Guztira, 500 ume inguru izango dira aurtengo danborradan. Ohi den moduan, 12:30ean hasiko da danbor festa, Olazko Andre Mariaren plazatik. Talde batzuk Arana kaletik eta Bustinzuriko Errebaletik jaitsiko dira hara, eta beste batzuk Artzubitik igoko dira. Ohiko legez, Arangatik abiatuko da karroza, eta hura arduratuko da desfilea itxteaz. Trikitiari lotutako karroza izango da aurtengoa, eta Aitor Expositok diseinatu du. Karmelo Etxegarai ikastolako bost ume-jo-

ango dira karrozan. Haren atzetik inudez, mikelteak eta abarrez jantzita desfilean irten nahi dutenek Aranera joan beharko dute. Alde Zaharreko kaleak igaro ondoren, danborrada plazara iritsiko da, eta han abesti guztiak jotzen dituztenean amaituko da haurren danbor festa. Ez dira, ordea, eguneko danbor hots bakarrak izango eguerdikoak; gauean banderaren jaitsiera ekitaldia izango da. Aurtten, Arrantzaleak, Gure Ametsa, Ardozaleak, Iraurgi Saskibaloia, Mendizaleak eta Barratsu taldeei egokitu zaie danborradan parte hartzea, baina larunbata izanik, beste talde bat ere batu da festara: Basazabal.



Iritzia

Haizea Arraras

Ikasberri Ikastolako ikaslea

Sansebastianetarako gogoz

Orain arte ikastola barruan egiten genuen zerbait izan da danborrada, eta beti danborra jotzea tokatu izan zait, gainera. Aurten, ordea, kalean ateratzea egokitzen zaigu

ikastolatik, eta Enparan jantziarekin irtengo gara.

Orain arte gogo handia izan dut egun hau iristeko, eta aurten ere gogo handiz nago.

Oso gustura nago. Izan ere, umeen danborradan ez ezik,

aurtengo handien danborradan ere aterako naiz zuzendari txiki gisa, Zezenzaleak taldetik.

Nahiz eta urduri egon, ilusio handia egiten dit. Nire ustez, San Sebastianak gozatzeko eta ondo pasatzeko dira.



Iazko haurren danborradan, banderadunak udaletzeko balkoian.

IO
Iosu Optika
OPTIKA AUDIO

Ondo pasau sansebastianak!

ERDI KALEA, BEHEA ZG • 943 15 12 91 • AZPEITIA

RPS 56-20

VL villegas larrea
arraindegia

943-81 68 91
Enparan, 29 • AZPEITIA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

ondo pasau sansebastianak!

GU

Urdurik, 4
AZPEITIA
943-81 03 08

JOXE RAMON
• harategia •

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolabide 23 • Azpeitia • 943-8105 59 • 636 92 86 49

MIMA
ETXeko OSAGARRIAK

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolako Inazio Hiribidea 21, behea
943-81 69 76 | 645 00 50 65 | mima.denda@gmail.com
www.mima.eus | @mimadenda

Tien21 ESNAOLA



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Pablo VI, 3 • Tel.: 943-08 03 55
esnaelek@outlook.com

LOPENE
horategia

Urbinate 3, beheha
943-81 00 23
AZPEITIA

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

LOIOLA HOTEL
JAVETXEA

HOTEL LOIOLA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolako Inazio hiribidea, 47 • Azpeitia • 943-15 16 16
loiola@hotelloiola.com • www.hotelloiola.com

adi: zure begien
irribarrea gara

ondo pasau sansebastianak!

adi: optika/audio
zenitroa

Azpeitia Jose Artetxe 21 • 943-15 75 74 • 663 63 73 55 • www.adi.eus • adi:optika

Julian Elorza Hiribidea, 3 beheha
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 76 99
627 44 19 00
etxeaz@hotmail.com

ETXE-AIZ

etxegintza, s.l.

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**



34 • Haurren danborrada

UZTARRIA GUKA
Asteartea, 2024ko urtarrilaren 16a

Itsasi kultur taldea



Sorrera. 1984. urtea.

Janzkera. Soldadu frantziarren (mutilak) eta urketariaren (neskak) jantziak: soldaduek galtza zuriak, jaka berdeak eta txapel eta polaina beltzak; urketariak koloretako gona luzeak, koloreetako zapiak zein blusa eta aurreko mantal zuriak.

Danborra ala txapa. Danborra eta txapa.

Juan Antxieta musika eskola



Sorrera. 2004. urtea.

Janzkera. Soldadu jantzia: jaka urdinak, galtza eta gerriko zuriak eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Iraurgi ikastetxeko Zumalakarregi taldea



Sorrera. 1986. urtea.

Janzkera. Zumalakarregi jantzia: beroki grisak, galtza gorriak, gerriko eta lepoko beltzak, motxila zuriak eta txapel beixak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Iraurgi ikastetxeko mikeleteak



Sorrera. 1986. urtea.

Janzkera. Mikelete jantzia: galtza eta txapel gorriak, esklabindun jaka urdinak eta gerriko beltzak.

Danborra ala txapa. Txapa.

Iraurgi ikastetxeko ezpatadunak



Sorrera. 1986. urtea.

Janzkera. Galtza estu zuriak, solapa eta eskumutur gorri-dun jaka beltzak, txorrera zuriak zein polaina eta txapel beltzak.

Danborra ala txapa. Danborra.



Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi gorriak



Sorrera. 1986. urtea.
Janzkera. Napoleoi jantzia: jaka gorriak, galtza zuriak eta txapel eta polaina beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Karmelo Etxegarai Ikastolako bizkaitarren tertziok



Sorrera. 1986. urtea.
Janzkera. Bizkaitarren tertzioko jantzia: galtza zuriak; eskumutur, petxera nahiz lepo gorridun jaka urdin ilunak; korreaje zuriak; eta txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi urdinak



Sorrera. 1986. urtea.
Janzkera. Napoleoi jantzia: galtza zuriak, petxera urdin argidun jaka urdin iluna eta polaina nahiz txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

Ikasberri Ikastolako sukaldariak



Sorrera. 1996. urtea.
Janzkera. Sukaldari jantzia: laukidun galtzak, jaka eta sukaldarien txapel zuriak eta zapi urdinak.
Danborra ala txapa. Txapa.

Ikasberri Ikastolako Gipuzkoako tertziok



Sorrera. 1996. urtea.
Janzkera. Gipuzkoako tertzioko jantzia: pasamaneria gorridun eta urrezko haridun jaka urdin ilunak, galtzerdi urdinak eta txapel beltzak.
Danborra ala txapa. Danborra.

landeta
brikodenda

ondo pasau
sansebastianak!

Landeta hiribidea, 8 • Azpeitia • 943-81 25 66
www.landetabrikodenda.com

luba

AUTOEN TRANSFERENTZIA
FISKALA
KONTABLEA
FINKEN ADMINISTRAZIOA
GESTIO INMOBILIORIOA
GESTIO LANAK

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Enparan kalea, 45 AZPEITIA • Tel 943-15 75 25 • Faxa 943-15 72 75
ander@lubagestoria.com • lubapedro@gmail.com



ondo pasau
sansebastianak!

B&R
Braserie

Landeta I. AZPEITIA 943122573

EPI
kristaldegia

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Antzibarrena Kalea, 8, Azpeitia • 943-81 25 95

• TABERNA •
BORDATXO


ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!



Landeta Auzoa • 20730 AZPEITIA • 943-81 20 27




Irteera




Herriko plazan

UDALETXEA

(D)	2 IRAURGI (ZUMALAKARREGI) (B)	(D)	(B)	5 KARMELO ETXEGARAI (NAPOLEOI URDINAK) (D)
1 KARMELO ETXEGARAI (NAPOLEOI GORRIAK)	3 IKASBERRI IKASTOLA (GIPUZKOAKO TERTZIOA)	4 IRAURGI IKASTETXEA (MIKELETEAK)	6 JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLA (B)	7 KARMELO ETXEGARAI (BIZKAIKO TERTZIOA) (D)
8 ITSASI (B)	9 IRAURGI IKASTETXEA (EZPATADUNAK) (D)	10 IKASBERRI IKASTOLA (SUKALDARIAK) (B)	ĨNUDEAK  KARROZA	

Danbor taldeen irteera hurrenkera:

- 1.- Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi gorriak.
- 2.- Iraurgi Ikastetxeko Zumalakarregi taldea.
- 3.- Ikasberri Ikastolako Gipuzkoako tertzioen taldea.
- 4.- Iraurgi Ikastetxeko mikeleteak.
- 5.- Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi urdinak.
- 6.- Juan Antxieta musika eskolako taldea.
- 7.- Karmelo Etxegarai Ikastolako Gipuzkoako tertzioen taldea.
- 8.- Itsasi taldea.
- 9.- Iraurgi Ikastetxeko ezpatadunak.
- 10.- Ikasberri Ikastolako sukaldariak.





Ondo pasatu sansebastianak!



**GURE ATERPEAN,
ETORKIZUNA EREITEN**

HERRIA ASKATASUNA KONPROMISOA ZAINTEZA ERALDAKETA KONFIDANTZA



EITEN
AROSZTEGIA

**Eman
egurre
danborrei!**



«Zortez, beti iritzi eta hitz onak jaso ditut»

Aitor Exposito, karrozaren egilea

AUTOESKOLA **UROLA** PSIKOTEKNIKOA



✓ Baimenak:

- AM
- A1
- A2
- A
- B
- B+E
- C
- C+E
- D



- CAP kurtsoak
- ADR kurtsoak



Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera

- Gidabaimenak
- Armak
- Nautika
- Txakur arriskutsuak
- Kirol ziurtagiriak



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**



Julian Elortza Hiribidea
AZPEITIA
943-15 63 27



40 • Karroza

UZTARRIA GUKA
Asteartea, 2024ko urtarrilaren 16a

**GOI
ATZ**
ILEAPAINDEGIA

salbe auzunea, 36
20730 azpeitia
943-81 04 08

**ONDO
PASAU
SANSEBASTIANAK!**



ondo pasau
sansebastianak!

Damaso Azkue Pl. 4 • Azpeitia • 943 15 12 26

**URBISTONDO
MARGOAK**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**EMAN KOLOREA
SANSEBASTIANEI!**

Salbe Auzunea 35 behea
20730 AZPEITIA • 943-81 57 81
info@urbistondomargoak.com



COVIRAN

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Salbe auzoa, 22 | Etxe Alai Kalea, 3
Azpeitia

Hirugarrenoz arduratu da Aitor Exposito (Azpeitia, 1994) haurren danborrako karroza egiteaz. Baserria eta Azpeitiko Antzerki Topaketan 40. urteurrena izan dira aurreko urteetako gaiak, eta aurtengoak, berriz, trikitia izango du oinarria.

2020, 2022, 2023... Azpeitiko karroza egile ofiziala bihurtzen ari zara.

Ez, ez, ez dut uste. Nik baino gehiago egin dituenik izango da ziurrenik.

Gustuko eginkizuna duzu, ordea.

Bai, oso gustura egiten dut. Azkenean, ilusioa egiten didan zerbait da, herriarentzat egiten dudana gauza bat.

Noiz hasten zara karrozaren proiektuarekin? Nolako izaten da prozesua?

Karroza egiteko proiektuak aurkez daitezkeela dioen albistea irakurtzen dudanean hasten da prozesua. Gaia jakitean, buruari buelta pila bat ematen hasten naiz; nahi gabe egiten dudana zerbait da, gauean ohera sartzean ere karrozaren gaia izaten dut buruan. Ezin izaten dut kendu burutik... Informazio bila hasten naiz Interneten, ahalik eta informazio zehatzena eta zuzenena izateko. Normalean azaroan izaten da, hil hasieran, eta hilabeteko epea izaten da proiektua aurkezteko.

Nola garatzen duzu sansebastianetarako karrozaren ideia hori?

Buruan ideia bat egiten dudanean, margotzen hasten naiz, probak egiten. Horrek denbora

asko hartzen dit, ahal dudana proiekturik onena egin nahi izaten dudalako, baina, aldi berean, ez dudalako izaten denbora gehiegi, eta proiektua aurkezteko epea nahi baino lehenago iristen zait. Horrek aurkeztutakoarekin erabat gustura ez gelditzera eramaten nau, denbora gehiagorekin proiektu borobila goa egingo nukeen sentipena izaten dut. Hala ere, ahalik eta lanik txukunena aurkezten saiatzen naiz. Aurretik, gainera, gremioekin hitz egiten dut, proiektua aurrekontuaren barruan sartzen den eta gauzatze denbora izango luketen jakiteko. Lehiaketaren irabazle

«Gaia jakitean, buruari buelta pila bat ematen hasten naiz; nahi gabe egiten dudana zerbait da, gauean ohera sartzean ere karrozaren gaia izaten dut buruan»

suertatuz gero, berriro harremanetan jartzen naiz gremioekin, artzarekin eta margolariekin batik bat. Gabonak beraiekin hitz egiteko eta dena zehazteko aprobetxatu ditut, izan ere, izugarrizko laguntza

ematen dute. Norberak diseina dezake proiektua, baina gero egingarria izan behar du. Gainera, egon daitezke hobetu daitezkeen gauzak, eta beraiek gehiago dakitenez, beraiek emandako aholkuei jarraitzen diet. Errege Magoen ondoren, karrozaren plataforma betetzen hasten dira, eta danborrada aurreko egunetan azken detaileak izaten ditugu egiteko. Beno, San Sebastian eguna bera ere horretan

«Gauza askotan gertatzen den bezala, azken ukitu horiek asko luza daitezke»

igarotzen dugu... Gauza askotan gertatzen den bezala, azken ukitu horiek asko luza daitezke.

Eta dena amaitutakoan, la-saitasuna.

Bai, ikaragarritzkoa.

San Sebastian eguneko haurren danborradako karroza ikusteko irrika handia izaten dute herritarrak. Zu nola sentitzen zara horren aurrean?



Urduri jartzen naiz une horretan. Kalera irteten naiz, eta ez-kutuan ez, baina oharkabeen pasatzen saiatzen naiz. Danborrada ikusten dut, dena ondo doala ziurtatzeko, eta orduan lasaitzen naiz.

Eta herritarren iritzia entzuten al duzu? Edo kostatzen zaizku?

Hasieran ez dut gehiegi entzun nahi izaten, baina dena ondo joan dela ikusitakoan, eta ni neu lasaiago nagoenean, gustatzen zait jendearen iritzia jakitea.

Aurreko urteetako lanen aurrean, zer erantzun jaso duzu azpeitiarrengandik?

Zortez, beti iritzi eta hitz onak jaso ditut. Txarrak entzutea ez da ona izaten, eta gustura nago orain arte jasotako erantzunekin. Ea aurtien ere horrela izaten den.

Trikitia da aurtengo gaia. Nola hartu zenuen?

Zaila da horrelako gai bati heletzea; izan ere, nola lotu dezakezu Azpeitiarekin? Ezinezkoa da. Gaia orokorrean hartu eta trikitiak berak dituen alde guztiak aztertu behar dituzu: instrumentua, historia, bilakaera... Baditu landu daitezkeen arloak, eta hortik jo dut.

Iaz Azpeitiko Antzerki Topaketak izan zen karroza-

ren gaia; herriarekin lotura zuzena duen gaia. Azpeitiarekin lotura zuzenik ez duen gaia denean, errazagoa ala zailagoa da proiektua lantzea?

Lotura zuzenik ez duenean, zailagoa egiten zait niri, lotura hori zuk zeuk bilatu behar duzulako. 2020ko urtean ere gauza bera gertatu zitzaidan: orduan base-rria izan zen gaia, oso gai zabala, eta zer bide hartu erabakitzea kostatzen da horrelakoetan. **Aurtengo karrozaren diseinuaren inguruan zerbait aurreraterik bai?**

Ez, ez. San Sebastian egunera arte sekretua da. Aurreratu dezakedan gauza bakarra da bost ume joango direla karrozaren gainean. Sei joan daitezke gehienez, eta umeei aukera eman nahi dieidan arren, bost haurrekin nahikoa dela erabaki dut aurtien, karroza gehiegi beteta joan ez dadin.

Iaz Amsterdamen zinen lanean. Aurten ere bertan jarraitzen al duzu? Karrozaren lanak eta antolaketa erraz kudeatu al dituzu?

Bertan jarraitzen dut lanean, eta sortze prozesua, beraz, handik egin nuen. Beharrezko dokumentuak eta, adibidez, gurasoek bidaltzen dizkidate, eta gero,

Gabonak aprobetxatu nituen gremioekin eta karrozaren gainean joango diren umeekin hitz egiteko. Amsterdamera itzuli nintzen berriro lanera, eta urtarrilaren 12tik Azpeitian nago berriro, dena amaitzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

«Oso gustura nago emaitzarekin. Gremioek asko lagundu didate, eta lan oso txukuna egiten dute»

Beraz, ondo antolatuta eta udalaren eta gurasoen laguntzarekin egin dut.

Gustura emaitzarekin?

Bai, oso gustura. Gremioek asko lagundu didate, eta lan oso txukuna egiten dute. Paperean margotu nuen nik, baina arotzarengana joan eta dena muntatuta ikustean, hunkitu egin nintzen. Oso ondo egiten dute lan.

Hurrengo urterako proiektua prestatzen hasteko prest?

Ikusteko dago hori, ea non na- goen hurrengo urtean!

AVIA

- Erregaiak • Butanoa • Zerbitzu pertsonalizatua
 - Deskontuak Avia txartelarekin
 - Deskontuak Azpeitia txartelarekin
- ONDO PASAU SANSEBASTIANAK**

Ezkuzta pasealekua, z/g • AZPEITIA



Ondo pasau sansebastianak!

Jose Artetxe Kalea 13 - AZPEITIA • 943-81 18 57 • pastorkua@hotmail.com



zurekin
ondo pasau
sansebastianak!

JUAN XXIII 11, BEHEA • AZPEITIA



Salbe 33 • AZPEITIA • 943-81 04 89

Ondo pasau sansebastianak!



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!
ALABIER
ITURGINTZA



Urbite, 1 beheka 943-81 11 79 • linterneria@alabier.com



1970eko umeen danborrada




1970eko umeen danborrada



Ardozaleak elkartea, 1973an



Danbor jotzaile batzuk, 1974an



Pepe Gil zenak ondoen egiten zekien moduan eman zion bere alea herriari: argazki bidez. Irudi horiek guztiak webgune batean jarri dituzte herritarrentzat eskuragarri.

Pepe Gilen legatua

Azpeitiko Argazki Elkarteak, Azpeitiko Udalarekin lankidetzan, Pepe Gil zenaren argazki artxiboa digitalizatu eta Interneten jarri zuen 2023ko urrian, Flickr webgunean. Gilen artxiboa herritar guztientzat eta eskualdetik kanpo bizi diren azpeitiarrentzat eskuragarri jarri dute, beraz.

Azpeitiko historiaren hamarkadak eta gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu artxibo horrek; zehazki, 60ko hamarkadaren amaieratik 2004ra bitartekoak.

Bildumak gai ugari biltzen ditu, besteak beste, herri kirolak, zezenketak, erlijio ospakizunak eta prozesioak, omenaldiak, sari banaketak, kirol ekitaldiak, musika ikuskizunak edo

leku esanguratsuen inaugurazioak. Festei eskainitakoa da, ordea, bildumaren atalrik mardulena, eta horien artean, San Sebastian festek badute leku eta pisu nabarmena.

70ko hamarkadako danborraden ehunka irudi utzi zituen Gilek, eta Uztarrria Gukak horietako batzuk bildu nahi izan ditu, herritarren oroimena atabal kolpe bidez dantzan jartzeko asmoz.



Artetxe-Bastida
Farmazia

Urbite, 3
658699555 - 943511949

Nutrizio zerbitzua

Azal-analizagailua dermokontseilurako

Autokontrolera bideratutako proba sinpleak:

- Glukosa
- Kolesterola
- Trigliceridoak



1972ko erregina



Musika Banda, 1976an



1975eko sokamuturra



3dk
irudika

arkitektura estudioa
ondo pasau sansebastianak!



1975eko haurren danborrada



ALTUNA Y URIA



Loiola

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!



Ondo pasau sansebastianak! TALDEKO BIDAIAK 2024

	EXTREMADURA 2024/03/17 - 2024/03/23 Baigera
	HERBEHEREETAKO ZEHARKALDIA IBAIZ 2024/04/20 - 2024/04/27
	INDIA 2024/04/19 - 2024/05/01
	TURKIA 2024/06/22 - 2024/06/30 Baigera
	KANADA MENDEBALDEA 2024/07/04 - 2024/07/12
	PERU BOLIVIA 2024/07/10 - 2024/07/23
	RALLYA FINLANDIAN 2024/07/31 - 2024/08/05
	AZOREETATIK MENDIKO TREKKINGA 2024/08/06 - 2024/08/13
	GALIZIA 2024/09/02 - 2024/09/09 Baigera
	ITALIAKO TOSCANA 2024/09/24 - 2024/10/01
	VIETNAM KANBODIA 2024/10/17 - 2024/10/29
	EGIPTO 2024/12/02 - 2024/12/09

688821256 M halconv75@halconviajes.com Halcon BIDAIAK

Egitaraua

Urtarrilak 19, ostirala

San Sebastian bezpera

22:00. Helduen danborrada, Olazko Andre Mariaren plazatik irten da. 30 taldek parte hartuko dute aurtengo edizioan.

00:00. Talde guztiak plazan elkartuko dira, eta danborradako piezak joko dituzte.

Urtarrilak 20, zapatua

San Sebastian eguna

09:00. Izarraitz txistulari taldeko kideen eta Juan Antxieta musika eskolako ikasleen goiz erezia, kalez kale.

09:30. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeek kalejira egingo dute plazatik hasita, eta Udal Musika Bandako musikariak eta Juan Antxieta musika eskolako txilibiteroak izango dituzte lagun.

10:15. Udal ordezkariek udal-etxetik Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara joango dira.

10:30. Prozesioa, Alde Zaharrean.

10:45. Meza nagusia, Soreasuko Sebastian Donearen parrokiari. Parrokiako eta Julian Barrenetxea abesbatzetako eta Azketa ahots taldeko kideek parte hartuko dute elizkizunean.

12:00. Sokamuturra, Erdikaletik aterara, plazan. Lopene ganadutegiko zezenak izango dira.

12:30. Arana kaletik eta Artzubia hiribidetik aterata, umeen danborrada. Kalez kale ibiliko dira hamar taldeak, eta plazan bukatuko dute ekitaldia. Halaber, Aitor expositok egindako karroz ere aterako da, trikitia gai hartuta.

16:30. Sokamuturra, Erdikalean hasita. 20:00etara bitartean ohiko ibilbidea egingo du sokamuturrak. Lopene ganadutegiko zezenak izango dira.

18:00. Hodei magoaren Sentsazio-



ak lana Soreasu antzokian. Sarre-
ra: 3 euro.

23:15. Bandera jaitsierako danborradaren hasiera. Bustinzuriko Errebaletik abiatuko dira jaitsieran parte hartuko duten taldeak (Arrantzaleak, Gure Ametsa, Ardozaleak, Iraurgi SB, Mendizaleak, Barratsu, Basazabal eta Arauntza), eta Alde Zaharrean kalejira eginda, plazan bukatuko dute ibilbidea.

00:00. Banderaren jaitsiera pla-

zan. Udal Musika Bandak joko ditu danborradako piezak, zuzenean.

Urtarrilak 21, igandea

16:30. Sokamuturra, Erdikalean hasita. 20:00etara bitartean ohiko ibilbidea egingo du sokamuturrak. Bergarako Zezenak ganadutegiko zezenak izango dira.

16:30. Familia osoarentzat Womka filma, Soreasu antzokian.

GLUAL

hydraulics

ondo pasau sansebastianak!

Landeta hiribidea, 11 • Azpeitia • Tel.: +34 943 15 70 15 • comercial@glual.com • export@glual.com

www.glual.com



Iritzia

Nagore Alkorta

Azpeitiko alkatea

Berriz hunkitzeko prest

2020ko urtarrilaren 19a zen. Nire lehen sansebastianak alkate naizenetik. Balkoira atera, eta behean plaza bete-betea. Ehunka herritar danborra jotzen eta beste hainbeste begira. Bandera igotzen hasi nintzen, eta a zer sentipena! Oraindik gogoan dut nolako zirrara sentitu nuen une hartan. Zaila da deskribatzen. Taupadak azkartuta, eta erabateko poza eta hunkidura.

Hurrengo bi urteetan, pandemiagatik, ez genuen sansebastianak behar den bezala ospatzerik izan, baina iaz berriro ere lehertu zen festa. Eta berriro ere sentipen berberak. Nola ez, desiratzen nago aurten ere danborradaren hasiera iragartzen duen txistua entzuteko. Hirugarren aldia izango dut banderaren igoeran eta jaitzieran, baina badakit berriz ere hunkituko naizela.

Beti izan dira nire festa

gustukoenak, eta ez da danborra jotzen atera izan naizelako. Hiruzpalau aldiz bakarrik aterako nintzen, urte askoan tabernan lan egitea tokatu baitzait gau horretan. Herritik kanpo ere bizi izan naiz beste urte batzuetan. Urte horietan, San Sebastian bezperan eta egunean, inoiz baino gehiago akordatzen nintzen Azpeitiaz, herriarekiko lotura berezi bat sentitzeraino.

«Zaila da deskribatzen. Taupadak azkartuta, eta erabateko poza eta hunkidura»

Ez dakit zer, baina badute zerbait sansebastianek. Harrapatzen nauen zerbait. Beharbada, aniztasuna. Era askotako herritarrek parte hartzen dute danborradan. Bestelako ekitaldietan gutxi ikusten duzun jendea ere ateratzen da egun horretan.

Herritik kanpo bizitzen urteak eta urteak daramatzatenak ere etortzen dira, eta ia-ia hurrengo sansebastianetara arte agurtuko dituzu kalean haiekin elkartzeko zarenean. Talde batzuetan, badakizu bakoitza zer ilaratan joango den. Eta norbait ez badago, zer gertatu ote zaion galdetuko diozu zeure buruari.

Hala ere, San Sebastian bezperan eta egunean ez ezik, esango nuke aurreko egunetan ere giro berezia egoten dela herrian. Alaiagoa. Balkoietan banderak, erakusleihoak apainduta, jendea entseguetara joateko gogotsu. Zer esan umeen danborradaz ere. Zenbat ilusio transmititzen duten ateratzera doazen une horretan, zer urduritasun aurreko orduetan.

Sansebastiane zoztatzeko esango nieke herritarrei. Horrekin batera, eskerrak eman nahiko nizkieke festa hauek egin ahal izateko lanean ari diren herriko eragile guztiei.

URTARRILAK 19 SAN SEBASTIAN BEZPERA



SAIO BEREZIA

Erreportajeak 21:30etik 22:00etara
Zuzeneko gonbidatuekin, 23:15etik 00:30era
uztarria.eus eta Erlo Guka telebistan

GUKA

SANSEBASTIANAK

2024

azpeitia

uztarria.eus